

IRAKASLEAK SORTZEN DUEN**IKASMATERIALA ZUZENTZEKO ETA TUTORETZA EGITEKO PROZEDURA**

1. Irakasleak duen euskarazko materialaren zuzenketa egiteko aukera dago: **IRALEk tutoretza egin dezan materiala proposatuz**. Eskera egin Txantiloai hau betez: **Hemen klik egin**.

1.1.1.- Material sorkuntza: Irakasleak bere materialaren antzekorik badagoen aztertu behar du, gutxienez www.jakinbai.eus eta www.eimakatalogoa.net katalogoetan. Eginiko materialak gutxieneko kalitatea izan beharko du:

- Irakasleak sortutako materiala izan behar da. R400 edo R300ko materiala ezin da izan.
- Ez du erdarazko testurik edo argazkirik izan behar
- Argazkiak baditu originalak eta libreak (CC) izan behar dira edo iturria aipatu
- Liburu baten itzulpena bada, baimenak erosi behar dira (LANEKI Elkarteak kudeatzailearekin jakinbai@jakinbai.eus kontaktuan jarri).

1.1.2.- Material aukeraketa: Laneki Elkarteak ziurtatuko du kalitatezko materiala den eta aukeratuko ditu zein materialari tutoretza egingo zaien. Laneki-k bidaliko ditu Iralera.

Materiala bidaltzerakoan datu hauek bidali beharko dira:

- Irakaslearen izen-abizenak, kontaktua, telefonoa, ikastetxea, ...
- Zuzenduko den Materialaren izenburua, orri eta hitz kopurua, zenbat ikastetxe eta ikaslek ematen duten euskaraz, beste irakasleren batek baduen antzeko materialik, ...

1.1.3.- Iralek Tutore bat jarriko du materiala zuzentzeko eta harremanetan egongo da egilearekin

1.1.4.- Material egilea prest egon beharko da Iraleko tutoreak eskatzen dion eskakizunak erantzuteko edo bilera bat egin behar bada ere, egiteko.

1.1.5.- Behin materiala zuzenduta, EIMARA bidaliko dute Iralekoek eta bertatik datozen azken zuzenketa txertatu eta azken orrazkera emango zaio.


1.1.6.- Tutoreak, Irakasleari eta Laneki-ri **bidaliko diote materiala zuzenduta**

1.1.7.- Ikasmaterial egilearen onspenarekin jakinbai.eus-ra igoko da eta Iralekoei eta Eima katalogokoei emango zaie abisua.

1.1.8.- Ikasmaterialari ISBN aterako zaio, autoreak adieraziz eta egindako lanagatik ordainketa egingo da.

1.2.- Erabili Kontsulta Zerbitzua termino edo testu kontsultak egiteko

Beste zerbitzu interesgarri bat ere badago www.irale.hezkuntza.net/web/guest/kontsulta-zerbitzua. Hau testu laburretarako erabili ahal da.





HASIERA
Ikasmaterien tutoretza egiteko prozedura

Antzeko euskarazko ikasmaterialik badago

EZ

BAI

Ikasmaterien tutoretza txantiloia bete eta jakinbai@jakinbai.eusera bidali

jakinbai.eus-eko arduradunak azterketa egin eta IRALERA bidaliko du

IRALEko Irakasle Tutore bat izendatu

Zuzenketa-bilera tutorearekin egin

Ikasmateriala EIMARA

Azken zuzenketa

jakinbai@jakinbai.eus-era bidali ikasmateriala

ISBNa ateru eta baimena eskatu irakasleari

www.jakinbai.eus web gunera igo.

ISBN agiria ateru eta irakasleari ordainketa

irakasleari bidali

AMAIERA

	Irakasleak egin beharrekoa
	Laneki Elkarteak egin beharrekoa
	IRALEko tutoreak egin beharrekoa